

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2015eko AZAROAREN 5ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2015eko azaroaren 5ean, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbietta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.


ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
 Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre
 Ander Leon Nanclares
 Angel Serrano Martinez
 Felix Joaquin Asensio Robles
 Aritz Sarria Saraqueta

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarretako aktak onestu, hala bada/gokio/ Aprobación, si procede de las siguientes actas Plenarias:**
 - **2015eko urriaren 1ean egindako ohiko bilkura./Sesión ordinaria de fecha 1 de octubre de 2015.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. 2016 ekitaldirako Udal Ordenantza Fiskalak eta Udal zerbitzuak eskaintzeagatik Tasa eta Prezio Publikoen Ordenantzak onartzea, hala bada/ Aprobación de las Ordenanzas Fiscales y Ordenanzas de Tasas y Precios Públicos por prestación de Servicios Municipales para el ejercicio 2016.**
- 4. Arpire etxearen barnea birgaitzeko obra baimena eskaera, hala bada/ Solicitud de licencia de obra para rehabilitación interior de la casa Arpire, A.U.**
- 5. Murgil Eraikuntzak S.L.ek aurkezturiko fakturaren onespena, hala bada./Aprobación de la factura presentada por Murgil Eraikuntzak S.L.**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

6. Abenduaren 3an “Euskara eguna” dela eta Larraulgo eskolak eginiko proposamenaren onespena, hala bada/Solicitud realizada por la Escuela de Larraul por el día 3 de diciembre, día del Euskera.
7. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 2015 eko 3. Eta 4. Hiruhilabeteko ekarpenak burutzea, hala bada./Aportación económica correspondiente al 3. y 4. Trimestre del 2015 a Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea.
8. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.
9. Beste batzuk/Otros.
10. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- ☐ 2015 urteko urriaren 1eko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate andreak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

29/2015 Alkatetza Ebazpena, urriaren 2koa, A.S. jaunak eginiko eskaera onestu, hau da, ostiral iluntzetik larunbat iluntzera herriko parke zaharrear dagoen aparkalekua kotxeentzako ixteko baimena ematea, ebazten duena.


30/2015 Alkatetza Ebazpena, urriaren 6koa, Pala taldeak eginiko eskaera onestea, hau da, palan jokatzekeo beharrezkoa duten argiaren fitxak emateko baimena ematea, ebazten duena.

31/2015 Alkatetza Ebazpena, urriaren 6koa, Larraulgo eskolako batzordeak eginiko eskaera ez onartzea, hau da, kultur etxe sarrerako ezker aldean dagoen horma margotzeko baimena eskaera ukatzea, ebazten duena.

32/2015 Alkatetza Ebazpena, urriaren 20koa, 2015eko 3. Hiruhilabeteari dagokion ura eta zabor tasan erroldak onestea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2016 EKITALDIRAKO UDAL ORDENANTZA FISKALAK ETA UDAL ZERBITZUAK ESKAINTZEAGATIK TASA ETA PREZIO PUBLIKOEN ORDENETZAK ONARTZEA, HALA BADA

Ikusirik 2016. urterako udal ordenantza fiskalak aztertzeko unea dela.

Ikusirik 2015 urteko urriaren 5ean Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak igorritako txostena, non jasotzen den ordenantza fiskalak sortu, aldatu eta ezabatzeko jarraitu beharreko prozedimentua, batetik, eta bestetik, 2015eko ekitaldian Udala aplikatzen datorren zerga eta tasak.

Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak, ahobatez,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- 2016 urterako zergak arautzen dituzten ordenantza fiskalari dagokionez, ondorengo aldaketak onestea:

1.1.Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuotak zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen ordenantza fiskala.

Ordenantzaren eranskina mantentzea erabaki da.

Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa zoru industrial edo tertziarioan: %0,30.

Gainerako hiri ondasun higiezinari aplikagarri zaion karga tasa: %0,25.

Landalur Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa: %0,60.


Dauden hobarien artean “Eguzki aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak” hobaria, % 25a izango da.

“Famili ugariari” dagokion hobariari buruz 3 ume edo gehiago duten familiei % 50eko hobaria eta “eguzki aprobetxamendu termiko sistemak” izateagatik % 25eko hobaria aplikatuko zaiela mantentzen da.

1.2.Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren ordain-arazpenerako zenbait ahalmen arautzen dituen ordenantza fiskala.

Zerga honen kuotak zehazteko finkatutako gutxienezko kuoten gehikuntza-koefizientea % 2,2 finkatzen da. Mantentzea proposatzen da.

1.3.Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren kuota zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen Ordenantza Fiskala.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Zerga honen koefizientea % 1,69-an mantentzea proposatzen da.

Ibilgailu historikoei % 50eko hobaria aplikatzen jarraitzea onesten da.

Ibilgailu mota eta potentzia Koefizient. Euroak

A)Turismoak:

9 zaldi fiskal bitartekoak % 1,69.....	31,08
9 - 11,99 zaldi f. bitartekoak % 1,69.....	62,16
12 - 13,99 zaldi f. bitartekoak % 1,69.....	103,60
14 - 15,99 zaldi f.bitartekoak % 1,69.....	145,03
16 - 19,99 zaldi f.bitartekoak % 1,69.....	186,47
20 zaldi fiskaletik gorakoak % 1,69.....	227,91

B)Autobusak:

21 plaza bitartekoak % 1,69.....	140,77
21 - 50 plaza bitartekoak % 1,69.....	200,50
50 plazatik gorakoak % 1,69.....	250,63

C)Kamioiak:

1.000 kg. Bitarteko karga erabilgarria % 1,69.....	71,45
1.000 - 2.999 kg. bitarteko k.e. % 1,69.....	140,77
2.999 - 9.999 kg. bitarteko k.e. % 1,69.....	200,50
9.999 kg-tik gorako k.e. % 1,69.....	250,63

D)Traktoreak:


16 zaldi fiskal bitartekoak % 1,69.....	29,86
16 - 25 zaldi f. bitartekoak % 1,69.....	46,93
25 zaldi fiskaletik gorakoak % 1,69.....	140,77

E)Trakzio mekanikoko ibilgai-luen atoi eta erdi-atoiak:

750-1000 kg. bitarteko karga erabil-garria % 1,69.....	29,86
1.000 - 2.999 kg. bitarteko k.e. % 1,69.....	46,93
2.999 kg.tik gorako karga e. % 1,69.....	140,77

F)Gainerako ibilgailuak:

Ziklomotoreak % 1,69.....	7,62
Motozikletak: 125 z.k. bitartekoak % 1,69.....	7,62
Motozikletak 125 - 250 z.k. bitartek. % 1,69.....	13,05
Motozikletak 250 - 500 z.k. bitartek% 1,69.....	26,11
Motozikletak 500 - 1.000 z.k. bitartek. % 1,69.....	52,22
Motozikletak 1.000 cctik gora % 1,69.....	104,42



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

1.4. Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskala.

Mantendu egiten dira kuotak.

Baserrien berrikuntza	%2,5
Besteak:	
a) 60.000,00 euro arteko aurrekontua dutenak:	%4,50
b) 60.000,01 euro baino gehiagoko aurrekontua:	%5,00

HOBARIAK:

- % 50 eko hobaria, eraikuntza, instalazio eta obrek ezgaitasun bat duten pertsonen irisgarritasun eta bizigarritasun baldintzak errazten dituztenean.

Hobari hau aplikatzeko, baldintza hauek beteko dira:

-Ezgaitasun kalifikazioa edukitzea.

-Mugikortasun baremoan, gutxienez, 7 puntu izatea.

-Kuota zehazteko, obraren aurrekontu osoa hartuko da kontuan, baldin eta obraren helburu bakarra eraikina ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzea bada.

-Obrek eraikina berritzeko helburua badute, baina aurrekontuan beste partida batzuk ere jasotzen badira ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzeko egokitzapenez gain, dagokion partidak bakarrik hartuko dira kontuan hobari eskubidea duen kuota zehazteko. Horretarako, nahitaezkoa izango da aurrekontua ondo bereizita aurkeztea helburu hori duten obren zatian.

1.5. Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala.

Karga tasa: % 6,29-an mantentzea proposatzen da.

BIGARRENA.- Tasak arautzen dituzten ordenantzei dagokionez, ondorengo aldaketak onestea:


2.1. Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskala.

2.1.1. Ur horniketa.

Tasa honetan ondorengo proposamenak egiten dira.

1. Ur horniketa

Euroak



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

1.1. Ur Kontsumoa

1.1.1. Etxez-etxeko ur hornidura

30m³.bitartekoa, hiru hilabeteen 15,00 €Mantendu

31m³tik goragokoa, hiru hilabeteen0,67 €m³bakoitza,
0,68€m³bakoitza igotzea proposatzen da.

1.2. Azpiegitura kanona

Guztientzat, hiruhilabeteko.....10,00€-tan mantentzea
proposatzen da.

1.3. Kontadoreen alokairuen kanona

Guztientzat, hiruhilabeteko.....8,00 €Mantendu

1.4.- Hasierako engantxea etxe berrietan, etxeko 120,00 €Mantendu

1.5.- Hobariak: Gizarte-ongizate batzordeak proposatutakoak: Ikus I. eranskina.

2.1.2.- *Zabor bilketa zerbitzua*

Euroak

Etxez-etxeko bilketa, hiruhileko.....43,00 eurotik 37 euro tara
jeistea proposatzen da.

Industria, komertzio eta taberna bilketa, hiruhileko.....60,00 eurotik 52 euro tara
jeistea proposatzen da.

Ondorengo tarifa berriak onartzen dira:

Etxez-etxeko bilketa, konpostajea egiten ez dutenentzat, hiruhileko.....86euro.

Industria, komertzio eta taberna bilketa, konpostajea egiten ez dutenentzat,
hiruhileko.....120 euro.


Hobariak: Gizarte-ongizate batzordeak proposatutakoak: Ikus I. Eranskina.

2.1.3. *Dokumentu administratiboen igorpena:*

2.1.3.1. Lizentziak, kontzesiok eta hirigintzako baimenak mantentzea proposatzen da:

Mantendu egiten dira.

- Segregazio baimenak..... 80,00 euro
- Hirigintza kontsultak..... 80,00 euro.
- Lehen erabilera baimena 105 euro/etxeko.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- Edozein P.E.R.I., Zati Plana, urbanizazio proiektu, xehetasun ikerketa.....1.600,00 euro

Ondorengo tasa berri hauek onestea:

- 60.000 euro baino gutxiagoko aurrekontua duten obratako lizentzien izapidetzea.....30 euro
- 60.000 euro baino gehiagoko aurrekontua duten obratako lizentzien izapidetzea.....50 euro

2.1.3.2. Iharduera baimenak

Euroak

A.1. Klasifikatutako jarduera.....110,00 euro

A.2. Klasifikatutako jardueraren aurretiazko komunikazioa.....80,00 euro

2.1.3.3. Baimenik gabeko edo ezkutuko obra baimenaren legeztapena: Obra lizentzia emateagatik ateratako tasaren %200.

2.2. Herriko jabari publikoaren erabilera pribatiboari eta haren aprobetxamendu bereziari dagozkion tasen Ordenantza fiskala

Tarifak mantentzea proposatzen da.

2.2.1. Hileta zerbitzuak:

Mantentzea proposatzen da.

- Hezurtegiaren emakida:
 - Behin-betiko emakida, plaka barne.....195,00€
- Nitxoen emakida:
 - 15 urteko epean, plaka, apala,.....265,00€
 - 5 urte bitarteko luzapenagatik.....125,00€
- Lurperatze tasa: 48,00 euro.


2.2.2.- Kirol instalazioen erabilera: 3 euro/orduko.

2.2.3.- Bestelako prestazioak:

- Mapen salmenta: Handia.....3 euro unitatea.
Txikia.....1 euro unitatea.

HIRUGARRENA.- 2016 ekitaldirako ondorengo Zerga Egutegia finkatzea:

1.- HOBARI ESKAERA: 2016 urteko otsailaren 1etik martxoaren 1arte.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2.- TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUAK:

2016 urteko apirilaren 1etik ekainaren 1 arte.

3.- URA ETA ZABORREN TASA:

2016 urteko maiatzaren 2tik uztailaren 4 arte.

2016 urteko abuztuaren 1etik urriaren 3 arte.

2016 urteko azaroaren 2tik abenduaren 31 arte.

2017 urteko otsailaren 1etik apirilaren 3 arte.

LAUGARRENA.- Erabakitakoaren berri udal iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz ematea, 30 laneguneko epea irekiz edonork espedienteaz aztertu eta erreklamazioak edota iradokizunak aurkezteko, bere kasuan. Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, hartutako erabakiak behin-betikoz onartutzat emango dira beste erabakirik hartu gabe.

LAUGARREN PUNTUA

ARPIRE ETXEAREN BARNEA BIRGAITZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, HALA BADA

Ikusirik J.A.A. jaunak, A.U.A. jaunaren izenean eginiko eskaera, non Larraulgo Arpidene baserrian berritze lanak egiteko baimena eskaera egiten duen.


Ikusirik, 2015eko azaroaren 2an, Eba Erkizia Arkitektoak eginiko txostenean dioena:

“LARRAULGO ARPIDENE BASERRIAN BERRITZE LANAK EGITEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA

*ANTONIO URBIETA jaunak, Larraulgo Arpidene etxean barne berritze lanak egiteko Jon Altuna Alcorta arkitekto teknikoak zinatutako proiektu bisatua aurkezten du obra baimena eskatuaz. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:***

*Aurkeztutako proiektuaren arabera, etxebizitzaren berriztatzea, integrala edo osoa izango da. Barneko pareta guztiak bota eta distribuzio berri bat moldatuko da eraikinean. Erdi sotoa biltegi moduan erabiliko da. Behe oinean sarrera, esekilekua, logela nagusia, 2 komun, sukaldea, egongela eta jangela kokatuko dira, goiko oinean berriz, 2 logela, 2 komun, beste egongela bat, estudioa eta trasteleku bat egokitzen direlarik. Lanen betearazpen materialaren aurrekontua, eraikuntza eta eraispen hondakinen ekoizpen eta kudeaketa barne **82.901,26 €**-koa da.*

Hiri antolaketako 14 artikulua arabera, eraikinen antolakera aldatzen duten obrek,



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

hirigintza lizentzia behar dute.

Arpidene etxea Larraulgo lur hiritargarran kokaturik dago, bereziki A.I.U.1 kontsolidatutako kaskoan. Arpidene Larraulgo ondareko katalogoan sartua dago interes bereziko eraikin moduan. Mota honetako eraikinek oinarrizko kontserbazio bat jarraitu behar dute, kanpo itxura eta bolumena mantenduaz.

Teilatua, fatxada eta leihoak duela 15 urte eraberritu ziren. Orain proposatzen diren lanak barne distribuziokoak dira bakarrik eta ez dute ez bolumena ez hirigintzako aprobetxamendurik aldatzen.

Sortzen diren barne-espazio berriek Larraulgo araudiak ezarritako bizigarritasun baldintzak bete behar dituzte, bereziki, 3.2.3 atalekoak.

Arpideneko etxebizitzaren moldaketa berriak Larraulgo araudian azaltzen diren konposizioa eta programa, espazioen gutxieneko azalera eta bizitzeko gelen argiztatze eta aireztapenen baldintzak betetzen ditu.

Hau honela izanik, udal baimena ematea egokia dela iruditzen zait.

*Ekainaren 26ko 112/2010 eraikuntza eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko dekretuaren 5º artikulua araber, hirigintza-lizentziak emateko baldintza gisa, obra handietan sortutako eraikuntza eta eraispén-hondakinak behar bezala kudeatuko direla bermatzeko fidantza bat eratzea aginduko dute udalek. Kasu honetan **fidantza 618,8€**koa izango da.*

**Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.*

**Lanak amaitzean, obra amaieraren ziurtagiriarekin batera, eraispén-hondakinak behar*


bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, Aneli Urbietta Alkate-Lehendakariaren abstentzioarekin, 30/1992 Legeak 28. artikulua xedatutako kasu batean aurkitzen delako, gehiengoz, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J.A.A. jaunak, A.U. jaunaren izenean eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo Larraulgo Arpidene baserrian berritze lanak egiteko obra baimena onestea, betiere, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean jasotzen dituen baldintzak betetzen baditu.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

MURGIL ERAIKUNTZAK S.L.-ek AURKEZTURIKO FAKTURAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 2015eko uztailaren 9an egindako Udalbatzarrean, Larraulgo Eskolako komunen moldaketaren proiektua onestu zela eta lanak egin ditzan Murgil Eraikuntzak S.L. enpresari esleitu zitzaiola, 15.095,55 eurotako diru kopuruan (BEZ-a kanpo).

Ikusirik, aipaturiko lanak amaitu direla eta Udal Aholkulari teknikoak bere on iritzia eman diela.

Ikusirik Murgil Eraikuntzak S.L. enpresak aurkeztu duela obrak amaitu dituzenez dagokion faktura. Bere zenbateko 18.265,62€izanik.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Murgil Eraikuntzak S.L. enpresak aurkezturiko 80 zenbakiko faktura onestea eta bere ordainketa burutu dadin agintzea, bere zenbateko 18.265,62 euro izanik.

BIGARRENA: 18.265,62 eurotako gastua onestea.

SEIGARREN PUNTUA

ABENDUAREN 3-an “EUSKARA EGUNA” DELA ETA LARRAULGO ESKOLAK EGINIKO PROPOSAMENAREN ONESPENA, HALA BADA


Ikusirik Larraulgo Eskolak eginiko eskaera, non abenduaren 3-an Euskara eguna dela eta hainbat ekintza egin nahi dituztenez, Larraulgo Udalarari ondorengo eskaerak egiten dizkie:

- Plaza itxi
- Udaletxeko balkoian “euskaraz bizi nahi dut” ikurra jarri
- Udaletxeko balkoia erabiltzeko baimena ematea, Plazan egin behar dituzten ekintzak grabatu ahal izateko.

Gaia aztertutik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Larraulgo Eskolak eginiko eskaerak onestu.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BIGARRENA: Larraulgo eskolari erabaki honen berri ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2015-eko 3. ETA 4. HIRUHILABETEKO EKARPENAK BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik 2015eko urriaren 22an Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2015 ekitaldiko 3. eta 4. hiruhilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Larraulgo Udalak burutu beharreko ekarpena 13.000,00 eurokoa dela adierazten den. Ekarpena, Larraulgo udalak eskatuta, ondoren zehazten den moduan banatzen da:

- Gizarte zerbitzuak: 8.000,00 euro
- Kultura: 5.000,00 euro

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 13.000,00 eurotako ekarpena burutzea 2015 ekitaldiko 3. eta 4. hiruhilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko. Kontzeptu hauetan banatuta:

- Gizarte zerbitzuak: 8.000,00 euro
- Kultura: 5.000,00 euro


BIGARRENA.- 13.000,00 eurotako gastua onartzea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDANKETAK

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

IBERDROLA	194,31
IBERDROLA	230,34
IBERDROLA	135,04
IBERDROLA	28,02
IBERDROLA	68,92
IBERDROLA	196,93
REPSOL	4,19
REPSOL	54,33



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)


MOVISTAR	18,15
MOVISTAR	48,40
MOVISTAR	18,33
MOVISTAR	51,68
MOVISTAR	59,05
MOVISTAR	18,59
MOVISTAR	132,58
LIZARRA	115,31
IZFE	9,70
CORREOS	1,96
DIONISIO ORMAZABAL	56,94
BERTSOZALE ELKARTEA	389,21
ULAHÍ	363,00
EBA ERKIZIA	857,59
FERRETERIA BARBE	55,48
BERRI LANTEGIA	36,60
BULEGOAK	79,27
MENDI NEKAZARITZA	150,00
GIPUZKOAKO URAK	4.099,89
LIDOINSA	1.294,70
DISTRIBUCIONES LOPETEGI	178,14
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1.050,77
BERRI LANTEGIA	69,95
IZFE	1.874,80
MENDI NEKAZARITZA	150,00
EBA ERKIZIA	809,95
BERRI LANTEGIA	36,05
AITZOL EUSKALTEGIA	1.434,00
LIDOINSA	883,30
IRATZE	194,08
BERTSOZALE ELKARTEA	76,16
FERRETERIA BARBE	105,23

Udalbatzarrak **ahó batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **15.630,94** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA
BESTE BATZUK



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

9.1. G.J.S. JAUNAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik G.J.S. jaunak eginiko eskaera, non azaltzen duen 2015ko apirilaren 16an eginiko Udalbatzarrean, Larraulgo Elutsa etxeko lursailean dagoen txabola handitzeko obra baimena eman zitzaiola.

Ikusirik, G.J.S. jaunak aipaturiko txabola handitzea berak egin behar duela, eta horretarako epea amaitu zaiola.

Aurrekoa kontutan izanik, G.J.S. jaunak Udalbatzari, Larraulgo Elutsa etxeko lursailean dagoen txabola handitzeko obra baimena, sei hilabetez luzatzeko eskaera egiten du.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, Gotzon Jauregi zinegotziaren abstentzioarekin, 30/1992 Legeak 28. artikulua xedatutako kasu batean aurkitzen delako, gehiengoz, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: G.J.S. jaunak eginiko eskaera onestu, hau da, Larraulgo Elutsa etxeko lursailean dagoen txabola handitzeko obra baimena sei hilabetez luzatzea, jakinarazpen hau jasotzen duen hurrengo egunetik hasiko da epea kontatzen.

BIGARRENA: Erabaki honen berri G.J.S. jaunari ematea.

HAMARGARREN PUNTUA

ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK


10.1. AZAROAREN 25eko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: "EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA".

Ondorengo adierazpen instituzionala aurkezten da:

AZAROAREN 25eko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

"EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA"

Azaroaren 25a dela eta, data horixe izendatu baitu Nazio Batuen Erakundeak "Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna", gure gaitzespenik irmoena adierazi nahi dugu emakumeen aurkako edozein indarkeria-adierazpenekiko, zeinahi ere den (fisikoa, psikologikoa, sexuala, sinbolikoa...), bai halaber sexismo-modu guztiekiko, barne daudelarik finenak eta normalizatuenak, hala nola sexuen arabera rol estereotipatuak ezartzea edo bizitzaren esparru askotan



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

emakumeak ikusgai ez egotea, besteak beste. Berretsi nahi dugu, era berean, arazo estruktural baten aurrean gaudela eta, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunik eza oinarri duenez, ezinbestekoa dela berdintasun-politikak baliatzea, adituek zein nazioarteko erakundeek gomendatzen duten bezalaxe.

Emakumeen aurkako indarkeria gizartearen egituraren bertan oinarritzen da; izan ere, oraindik ere aukera desberdinak eskaintzen zaizkie emakumezkoen eta gizonezkoen, eta oraindik ere jaiotza-sexuaren arabera pertsonen askatasuna mugatzen da. Saiatu behar dugu bestelako gizartea eraikitzen, non pertsona guztiek askatasuna izango duten nahi duten bezalakoak izateko, non aukera izango duten potentzialtasun osoz garatzeko, eta non giza eskubideei begira berdintasunezko eta begirunezko tratua jasoko duten.


Gure xedea da pertsona guztiekiko tratua onak bermatuko dituen gizarte batean bizitzea, urrats bat gehiago emango duen gizartea eta, emakumeenganako indarkeriaren aurka agertzearekin batera, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde argi azalduko den gizartea. Gure aldarrikapena da pertsonen arteko harremanak errespetuan, autonomian eta berdintasunean oinarrituko dituen gizartea. Errespetatzea ez da bakarrik ez erasotzea; aitzitik, berorren esanahia ere da pertsona bakoitzak, berdintasunik ez dakarren mugarik gabe, bere bizitza-ibilbidea irudikatu ahal izateko bermea edukitzea.

Erakundeetatik geure ardura sozial eta politikoa onartu behar dugu, tratua onak sustatuko dituen gizartea eraikitzeko orduan, eta horretarako gure aurreiritziak, rola eta eguneroko jarrerak gure baitatik berrikusten hasi.

Horregatik guztiagatik:

- Konpromisoa hartzen dugu gure eskuduntzen esparruan udal politika aktiboa, integrala eta koordinatua garatzeko, tratua onen eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde.*
- Eta herritarrak gonbidatzen ditugu berdintasunaren aldeko konpromiso pertsonal eta kolektiboak har ditzaten, urteko egun guztietan, baita azaroaren 25a dela eta burutuko diren ekitaldietan parte har dezaten ere, bai halaber gazteen arteko prebentzio eta hezkuntzarako 'Beldur Barik' ekimenean.*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, EUDEL-ek aurkezturiko azaroaren 25eko adierazpen instituzionala: "Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna" bere osotasunean onesten du.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 20.45 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA